



Hernaniko igerilekua txiki gelditu dela dio Kirol Elkarteak eta igerileku berria estali litekeena izatea eskatzen du.

Kirol Elkarteak urte guztian erabili ahal izango den igerilekua eskatu du

■ Udalak egitekoa duen igerileku irekia “despilfarro bat” dela uste du, “urtean 2 hilabeteen” irekiko litza-tekeelako ■ Kirol Elkarteak dio zenbait herrietan ireki eta itxi egiten diren piszinak daudela.

UDALAK egitekoa duen igerileku irekiaren proiektuaren inguruan, Kirol Elkarteak urte guztian erabili ahal izango den igerilekua eskatu du. Bere hitzetan 2 hilabeterako balioko lukeen igerileku ireki bat “despilfarro bat da diru, errekurso eta zoruari dago-kionean”. Kirol Elkartearen esanetan, Lezon modu horretako igerileku estalia dago eta Donostian, berriz, erabat irekia zena tapatzekotan dira. Kirol Elkarteak Igeriketa, Waterpolo, Judo, Mahai Tenisa, eta Saskibaloia biltzen ditu.

Kirol Elkartearen iritziz, piszina irekiak ez du herrian hainbesteko eskerik. “Ikusi dugu legislatura honetan herrian planteatu diren beste proiektu haundiek aldaketak izan dituztela herriko sektoreekin hitz egin ondorenean. Igerile-

kuaren gaia eraman den moduan, ez zaigu iruditzen herrian halako eskerik”.

Aintzakotzat hartu ez
Kirol Elkarteak dio urtarilaren 22an bilera bat izan zutela Joxan Rekondo Alkatea eta Iñaki Barrio Kirol Patronatuko Lehendakariarekin beren kezka eta proposamenak azaltzeko. Bilera horretan, Hernani Kirol Elkarteak igerileku polibalentea eskatu zuen, hau da, eguraldi onarekin irekia egongo dena, baina, urte guztian erabiltzeko aukera ere emango duena.

Prentsa bidez enteratu
Orain, Kirol Elkarteak salatu du berriz ere prentsa bidez jakin dutela Udal ordezkariak beren iritzia ez dutela aintzakotzat hartu eta ez dutela “azalpen txiki-ekienik emateko ere delika-

dezarik izan”.

Era berean, Kirol Elkarteak honako hau galdetu du, “1985a ezkerro kiroldegian kirol jarduera bat aurrera daramakien elkarte batek, eta gainera bere bi sekziok igerilekua erabiltzen dutenean ez al du atentzio gehiagorik merezi Alkatea eta Kirol Patronatuko Lehendakariaren aldetik?”.

Hernanirako kirolaren plan estrategikoa
Kirol Elkarteak dio Hernaniko kirolaren plan estrategikoa behar dela epe ertain edo luzera begira, eta horixe eskatu du. “Inprobisatzeari utzi eta Hernanirako plan orokor estrategiko bat egitea eskatzen dugu, eta hor barruan sartu, zer kirol instalazio egin eta nola mantendu. Adibidez, 4-8 urterako plan bat”. □

Urte guztian erabiliko den igerilekua eskatzeko arrazoietako batzuk

- 1) Diputazioak 600.000 euro inbertitzeko (100 milioi pta) asmoa duen igerilekua urtean 2 hilabeteen barririk erabili liteke, gehienera 30 egunean.
- 2) Igerileku irekiak oso denbora motzean erabili litezke eta zenbait tokitan itxi ahal izateko proiektuak ari dira egiten.
- 3) Gipuzkoako ia igerileku guztiak 6 kale dituzte. Hernanikoak 5 ditu eta egiterako txikia zela pentsatzen zen.
- 4) Momentu honetan kiroldegia saturatua dago eta erabiltzaileentzat enbarazua da hau. Gainera, igerilekua erabili lezakeen jende kopuruak gora egin du eta beharrezkoa da igerileku berri bat egitea.
- 5) Patronatuak bitartekoak jarri behar lizkieke Klubei, kirol jarduerak aurrera jarrai dezan.
- 6) Inprobisatzeari utzi eta luzera begirako plan estrategiko bat eskatu dio KEK Udalari, instalazioen mantenimendua eta berriak egitea hartuko duena, epe erdi eta luzerako.

San Antonioak Ereñotzun

GAUR hasiko dira San Antonio jaiak Ereñotzun. Arratsaldeko 20:00ak inguruan Ozenki eta Kantuz Abesbatzak kantuan ibiliko dira Ereñotzun barrena. 21:00etan zikero jatea (txartelak bukatu dira) dago plazan; 23:30etan Mal de Ojo taldearen kontzertua izango da; 00:30etan preso, iheslari eta deportatuei omenaldia egingo zaie. Ondorenean, gaupasa izango da Laiotz taldearekin.

San Antonio jaiak gaur hasi eta astelehenera bitarte izango dira Ereñotzu auzoan. □

JUBILATU ETXEA

Gimnasian izen ematea

UZTAILEAN gimnasia egin nahi duten Jubilatu Etxeko bazkideek orain dute izen emateko garaia. Jubilatu Etxean edo kiroldegian bertan eman liteke izena. □

Errugbi elkarteak batzar nagusia

ERRUGBI elkarteak gaur zortzi, ekainaren 18an, egingo du urteko batzar nagusia, Landaren. Lehen konbokatoria 19:30etan izango da eta bigarren konbokatoria, jarraian, arratsaldeko 19:45etan. □

Etxerat elkarteak enkartelada deitu du gaurko

ETXERAT elkarteak enkartelada deitu du gaur 20:00etarako, *Errepresaliatuak* *etxera* lemarekin Etxeratek gogoratu nahi du Angel Pikabea preso hernaniarra gose greban dagoela pasa den maiatzaren 18tik. Pikabeak espetxez aldatu zuten ihes egitea leporatuta. Pikabeak dena montaje bat dela dio eta dagokion kartzelara eramatea eskatzen du. □

Yaben English School

Iturriaga z/g. 20120 Hernani Tel.: 943 33 17 63

- 5 eta 9 urte bitarteko haurretan espezializatuak.
- Cambridge University-rako prestakuntza
- Uztailerako intentsiboak
- Azterketetako errehabilitazioak

Matrikula irekia: Ekainaren 14tik 25era
Bulego ordutegia: 10:30etatik 12:30etara
"Local Examination Syndicate" of Cambridge University-ko kide

irrintzi taberna

Salda, Pintxo eta ogitartekoak
Ereñotzu, 3
Tel.: 943 555 601

Ondo para San Antonio jaiak!

musika eskola DOINU-ZALE

KARABEL AUZOA, 4 • behea ezkerre
943 33 12 33 - 20120 HERNANI

Musikaren lenguaia
Pianoa
Akordeoa
Panderoa
Bateria Modernoa

Tronpeta
Trikitia
Kitarra
Abesbatza
Armonia

AURREMATRIKULA ZABALIK: EKAINAREN 1etik
15era. Arratsaldeetan, 16:00etatik 20:00etara.

HELDUENTZAKO IKASKETA BEREZIAK - TALDE TXIKIAK - MUSIKA LENGUAIA 4 URTEKIK


■ HERRI KIROLAK - EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Hernani eta Astigarragako taldea Euskal Herriko herri kirol txapelketako finalera pasa da

■ Anoetan jokatu dute Gipuzkoako klasifikatoria eta hirugarren gelditu dira.

EUSKAL Herriko Herri Kirol Txapelketa ari da finalera hurbiltzen eta Hernani eta Astigarragako taldea fin ari da proba guztietan. Anoetan jokatu zuten Gipuzkoako taldeen arteko klasifikatoria eta Hernani eta Astigarragako taldea hirugarren gelditu zen. Gipuzkoako aurrenekoa Idiazabal izan zen.

Hernani eta Astigarragako taldea 12 pertsonen osatzen dute: Edurne Elizondo (jende proba, trontza), Ixakun Intxausti (jende proba, ingudea, toka), Nagore Soroa (dantza, sokatira), Susi Elozegi (dantza, lokotxak), Nere Lujanbio (lasto fardoa, zakua eramatea, soka tira), Ibon Zapiain (ingudea, jende proba, trontza), Gorka Ezeiza (lasto fardoa, txinga, sokatira), Jexux Mari Goñi (dantza, sokatira), Asier Zabaleta (toka, lokotxak), Aitor Barrenetxea (harri jasotzen, zakua eramatea, sokatira), Igor Garmendia (dantza, jende proba) eta Estitxu Eizagirre (harri jasotzen, sokatira, txinga). Entrenadore lanetan Inixio Arruti aritu da.



Estitxu Eizagirre harri jasotzen.

Finala hilaren 19an. Gipuzkoan, Bizkaian, Iparraldean, Nafarroan eta Araban sailkatutako ekipoen finala jo-

katuko dute hilaren 19an, larunbatean, Tolosako zezen plazan. Guztira 24 ekipo arituko dira: 288 kirolari. □

ASTIGARRAGA

Arantzazuko Ama ikastolak festa larunbatean

LARUNBATEAN Arantzazuko Ama Ikastolak Ikastolaren Eguna ospatuko du eta egun guztiko festa izango da. Goizeko 10:30etatik aurrera kirol erakusketak izango dira. Eguerdian, 14:30etan, udal pilotalekuan bazkaria egingo dute. Arratsaldeko 17:00etan Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia eskainiko dute, Foru Plazan.

Datorren ekainaren 19an, Norberto Almanoz Musika Eskolako kurso bukaerako jaialdia izango da. Ekainaren 19 eta 20an, Portugalgo *Camo*es Eguna ospatuko dute. □

Emakume batek eraso bat denuntziatu du eta testigu bila dabil

EMAKUME batek eraso bat denuntziatu du eta testigu bila dabil gertatutakoa argitzeko. Emakumeak azaldutakoaren arabera, eraso bat maiatzaren 3an gertatu zen, goizeko 09:30etan Biteri aurrean. Gizon bat atzetik etorri eta hankean jo zuen. Emakumeak dio gizon honek urrutze agindua bazuela lehenagotik. Dionez, momentuan bi gizonen eutsi zuten erasotu zuen gizona eta bestetik, emakume batek eseritzen lagundu zion. Denuntzia jarri duen emakumea hiru pertsona hauen bila dabil eta eskertuko lieke Udaltzaingora joango balira. □

www.euskoalkartasuna.org

euskal herria europar

[beste europa bat posible delako]

Eman botoa
Herrien Europaren alde

CHA **PSA** **ERC**

eusko alkartasuna
euskal sozialdemokrazia

Zai zoriotsuak opa dizkizuegu

Iturralde

M^a Pilar Anzizar Balerdi
Tel.: 943 330 461

Iturralde Baserria - Ereñozu Auzoa
20120 HERNANI

■ HITZ BITAN

✓ EUROPAKO HAUTESKUNDEAK

HZak kanpaina bukatzeko afaria egin du gaur. Herritarren zerrendak afari merienda egingo du gaur Tilosetan, arratsaldeko 20:30etatik aurrera, hauteskunde kanpainari bukaera emateko. Sardinak, txorizoa, patata tortila, sagardoa, ardoa, kafea, kopa eta purua izango dira, 7 euroren truke. Txartelak Garin tabernan daude salgai.

✓ AMHER

Bilera egingo dute gaur. AMHER elkarteak, bertakoak eta inmigranteak biltzen dituen kulturantzeko elkarteak, bilera egingo du gaur. Arratsaldeko 19:30etan Biterin. □

📖 JASOTA BEZALA

Justizia, aniztasuna eta integrazioa

EGOERA. Azkenaldi honetan, Europa Batasuneko ez diren herrietatik chunka pertsona etorri gara Hernanira. Gure asmoa hemen gelditzea da eta zuekin harreman sendoak egitea. Gure egoera oso larria da, milaka etorkinen egoeraren antzera; gizarte bazterketa jasaten dugula.

ZERGATIK ETORKINAK? Jakin badakizue inork ez duela gustuko jaioterria uztea, familia hartu eta milaka kilometrorra joatea, jakin gabe zer aurkituko ote duen. Urrats hori ematen dugu gure herrietako pobrezia edo egoera larrietatik ihes egitearren; abentura hau, bizimodu hobeko baten itxaropenaz egiten dugu.

ZER AURKITZEN DUGU? Arazo larriak kontutan izanik hiru alderdi dira aipatu nahi ditugunak. Lehenik eta behin, Atzerritartasun Legea; lege honek eskubideak mugatu eta ukatzen dizkigu. Bigarrenik esan lan baldintzak, etxebizitza, oinarritzako diru-sarrerak eta abar hari-harian ditugula. Eta azkenik, bizimodu berri honetan, etorkinok zailtasun handiekin aurre egin behar diegu: hemengo dinamikak ez ezagutzea, nahaste-borraste

eta bakardadeak, hainbat joera baztertzaila...

ZER EGIN? Hernaniko AMHER Elkartearen ikuspuntutik honako hau esan eta egin behar da (beste batzuk egiten duten lanari garrantziarik kendu gabe):

1. Udalak dituen zerbitzuen berri eman (irakaskuntza, euskara, osasuna, etxebizitzarako laguntzak, lan kontratuak, pobrezia, jarduerak, ikastaroak...) eta hauek eskaini beharko lituzke, batez ere etorkinei. Era berean, egoera larrian direnentzako, gizarte politika aurrerakoia suspertu beharko lituzke.

2. Hernaniko herritarren ikuspuntutik kontutan harturik, ekintzak eta jarduerak zabaldu. Gauza zehatzak suspertu, elkar bizitza aberastu, elkartasuna-justizia eta askatasuna indartu, elkar ezagutu, aniztasuna eta akordioak sendotu, bazterketak eta arrazakeria uxatu... oinarritzako zereginak ditugu etorkizun hobeago bat eraiki nahi badugu bederen. Oharra: Elkartearen ateak zabal-zabalik ditugu lan egin nahi duen ororentzat; hemen jaiok edo etorkinak, denok gara herritarrak).

Antonio Velez, Wilmer Gonzaga eta Niko Elizondo (AMHER-ko kideak)

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

► Taxiak: 943 550093
► Udaltzaingoa: 943 333288
► DYA: 943 464622
► Autobusak: 943 556662
► Anbulatorioa: 943 006666
► Jokalari anonimoak: 943 331103

✚ FARMAZIAK

► Egunez: Gomez Justel
Kale Nagusia 14
☎ 943 554892
► Gueuz: Orue
Lasarte. Jaizkibel plaza 2
☎ 943 362652

IRAGARKI MERKEAK

Opel Corsa salgai. Turbo Diesela. SS-AT. Egoera onean. ITVa pasa berria. Interesatuak deitu: **652 70 72 15**

Bi ohe artikulatu (motorrarekin artikulatzen dira) dauzkat salgai. 90 zmk zabalerarekin dute eta berri berriak daude. Prezioa adosteko Deitu: **943 33 37 67 . 943 33 05 84**

Langile autonomoa behar dugu, janari dendan lan egiteko. Deitu: **657 79 29 48**

Itziño Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: **943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)**

Nissan Primera salgai. SS-AN. 1.200 euro. Interesatuak deitu: **661 86 22 19**

TXILIBITA TABERNA

Ereñotzu auzoa - 943 33 60 61

Ondo pasa
San Antonio jaiak!

San Antoniotan hamaiketakoak eta bazkariak, ematen ditugu.



Arrain klase guztiak dauzkagu ia urte osoan

■ Kanpotik ekartzen dena eta pistifaktoriek produzitzen dutena kontuan hartuta, ia urte guztian edozein arrain iristen da arrandegietara ■ Kantauriko arraina 3 kanpaina nagusitan arrantzatzen da: berdela, antxoa eta hegaluzea ■ Arrainen izenak euskaraz daude arrandegietan.

GOIZEKO 05:00ak aldean jaikita joaten dira arrandegietatik arrain bila Pasaiaiko portura. Pasaiaiko portua da Gipuzkoako arrain merkatu-rik handiena eta bertan hartzen dute arrandegiek arraina. Merka-Oiartzun bezalako merkatu batzuk ere ondo funtzionatzen dute, baina, normalean kanpoko arraina edo pistifaktorietakoa saltzen dute. Horregatik, arrain klase guztiak izaten dira ia urte osoan arrandegietan, garaia denean bertakoa eta bestela kanpokoa.

Pasaiaira egunero

Egunero, Pasaiaiko portuan goizeko 05:45ak aldean hasten dira arraina saltzen, subasta bidez. Kofradiako egoitzan subastatzen da eguneko arraina, bertako baxurako arrantzaleek harrapatua.

Arrandegietatik joandako bakoitzak bere izena edo zenbakia du eta kofradian sartzen dira. Arraina bistan dela, prezio maximo bat jaritzen dio kofradiak, eta pixkanaka merketzen joaten da, ordularien orratzak izango balira bezala. Arrandegi bakoitzak interesatzen zaionean subasta geldituko du eta berarentzat izango da arraina. Gero beste arrain bat subastatuko dute, beste prezio bat jarriko zaio eta beste arrandegi batek hartuko du. Eta horrela jarraitzen du, goiz eta arratsalde.

Kofradiako egoitzatik kanpora ere izaten dira subastak (alturako barkuek harrapatua eta beste arrain klase bat, normalean). Beste merkatu batzuk ere badaude (Merka-Oiartzun, adibidez) eta merkatu horietan kanpoko arraina erosteko aukera izaten da, normalean, inportaziokoa.

Gero eta arrain gehiago iristen da pistifaktorietatik: mihi arraina (lengoadoa), urraburua (dorada), izokina...

Hiru kanpaina Kantaurin: berdela, antxoa, hegaluzea Kantauri itsasoko arrantzaleek hiru kanpaina nagusi izaten dituzte urtean: berdela, antxoa eta hegaluzea (bonitoa). Hiru arrain horiek migrazioan ibiltzen dira eta kantauri itsasotik pasatzen dira urte garai jakinetan. Berdel kanpaina otsailean hasten da eta apirila bukaera arte harrapatzen dute. Euskal itsasertzean harrapatzen da gehienez; antxoa (bokarta) apirilean hasi eta ekaina bitarte. Kantauri hego



Arrandegietan arrainen izenak euskaraz ikusteko aukera dugu dagoeneko. Kanpaina hori Buruntzaldeko 6 Udaletako Euskara Zerbitzuek daramate aurrera.

eta ifarrean harrapatzen da; eta hegaluze kanpaina uztai-lean hasi eta ia azaroa arte izaten da eta Bizkaiko golko- tik ia Azoreak irletaraino joa- ten dira arrantzaleak. Antxoa eta hegaluzea izaten dira arrandegietan kanpaina ez de- nean ere, kanpotik asko ekar- tzen baita (antxoa Tarragona inguru horretatik asko).

Legatza, xapoa, oilarrak eta beste arrainak

Kanpainatik kanpora harra- patzen dira gainerako arrai- nak. Legatza, xapoa eta oila- rrak nahiz eta Kantauri itsa- soan harrapatu (gehiena Fran- tziako kostan), kanpotik ere asko sartzen dira (legatza: Txile, Namibia, Irlanda eta abarretatik). Sardina eta txi- txarroa ere urte guztian harra- patzen dira.

Izokina eta bakailaoa ez dira Kantaurin harrapatzen. Normalean Norvegia, Islandia edo ipar itsasoetatik ekartzen dituzte, baina, beste leku batzuetatik ere iristen dira.

Pistifaktoriak gero eta gehiago

Gero eta arrain gehiago iris- ten da pistifaktorietatik: mihi arraina (lengoadoa), urrabu- rua (dorada), izokina... Nor- malean itsasoan gehiegi ez dagoen arraina izaten da eta itsasokoa nahi bada, prezio altuak ordaindu behar izaten dira. Pistifaktorietatik mer- keago ekartzen dute arrain hori, nahiko erraz lortzen dutelako haztea.

Arrainen propietateak

Arrainak bi familia nagusitan banatzen dira: txuriak eta urdinak. Isatsaren formari be- giratuta ez da zaila zein den zein jakitea: urdinak isatsa <

moduan daukate eta txuriek D moduan. Urdinak dira: antxo- a, hegaluzea, txitxarroa, ber- dela... txuriak, berriz: legatza, xapoa, oilarrak, bakailaoa...

Bi familia nagusi horiez gain arrandegietan badaude baita ere: mariskoa (langosta, ganba...) eta zefalopodoak (txipiroia, olagarroa...)

Azken aldian, gero eta gehiago hitz egiten da arrai- nen elikadura propietateei bu- ruz. Modan jartzen ari dena arrain urdina da. Diotenez, *grasa monosaturatua* dauka eta hori ona omen koleste- roarentzat. Arrain txuria, be-

Arrain urdina modan jartzen ari da. Grasa monosaturatua dauka eta diotenez, oso ona da kolesterolaren aurka

rriz, proteinatan da aberatsa. Adibidez, bakailaoak beste arrainek baino lau bider pro- teina gehiago omen du. Mariskoak eta Zefalopodoek ez dute kalterik neurrian janez gero, baina, komeni ez abu- satzea.

Haragia sendo, begi bixiak

Arrain freskoa zein den an- tzemateko hiru gauzei begira- tu behar zaiela diote arrantza- leek. Haragia sendo eduki behar du, belakatu edo maila- tu gabe. Begiak zenbat eta bi- xiago eta zakatzak (agalla) zenbat eta gorriago izan, ho- be. Dena dela, ezin zaio horri bakarrik kasu egin. Batzue- tan, arraina fresko egonagatik zakatzak ilun samarrak izan ditzake, izotzetan egon dela- ko, eta abar.

Beti egoten direnak

Erdarazko esaera batek dioe- nez: arrain urdina jan behar da irailetik apirilera (espai- nolez R duten hiletan). Dena dela, arrandegietan urte guz- tian izaten dira ia arrain guz- tiak. Garaia denean hemen-

Mediana da arrandegietan inoiz falta ez den arraina. Dudarik gabe, gehien jaten dena

goa eta ez denean kanpokoa, baina, arrain estimatuenak beti daude arrandegian. Inoiz faltatzen ez dena mediana da, dudarik gabe, gehien jaten dena. Gero dau- de: antxoa, oilarrak, maruka, bakailaoa... □

GEHIEN JATEN DITUGUNAK

Berdela

Otsaila, martxoa, apirila
Euskal itsasertzean harrapatzen da
Arrain urdina

Antxoa

Apirila, maiatza, ekaina
(kanpotik urte guztian etortzen da)
Kantauri hego eta iparrean
Arrain urdina

Hegaluzea, zimarroia

Uztailetik azaroa bitarte
Kantaurin hasi eta Azoreetara
Arrain urdina

Legatza, xapoa, oilarrak...

Urte guztian zehar
Frantzia, Irlanda, Kantauri (gutxi)
Arrain zuria

Bakailaoa, izokina...

Urte guztian zehar
Norvegia, Islandia eta iparretik
(izokina pistifaktorietatik ere bai)

“Oceanography and Marine Environment of the Basque Country”

(AZTI Institutuak bultzatutako ikerketa):

“Itsasoa garbiago dago orain dela 10 urte baino”

ANGEL Borja AZTIko inbesti- gatzailak eta Michael Collins Southampton Zentroko irakasleak egin berri duten azterketak dio- enez, orain itsasoa garbiago dago duela 10 urte baino. XIX. eta XX. gizaldietan gizakiak txikitu egin du itsasoa. Egoerarik txarre- na 1980-90 urteetan izan du. Azken urteetan berriz, erre- koperazioa nabarmena izan da. Hori eragin dute: kuotak jarri izanak eta ku- tsadura kontrolatzeak. Oraindik, hala ere, itsasoa ez omen dago behar bezain garbi, eta hemendik aurrera erre- staurazio fasea hasiko omen da. □



Era honetako txartelak daude jarrita arrandegietan.

Arrainen izenak euskaraz

Buruntzaldeko arrandegi gehienetan arrainen izenak euskaraz jarrita daude. Liburuxka batzuk ere jarriko dira arrandegietan eta bertan biltzen dira: arrainen errezetak, hiztegitxo bat, txistek eta esaera zahar batzuk. Buruntzaldeko Udaletako Euskara Zerbitzu- ek (Astigarraga, Andoain, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta, Usur- bil) bultzatu dute kanpaina hori. □

ZENBATEAN DAUKAZU ANTXOA KILOA?

HERNANI:

- ⇒ Amaia (Kardaberaz 34 - 943 550752)
- ⇒ Anarri (Latsunbeberri 20 - 943 333001)
- ⇒ Eroski City (Elkano 17 - 943 330184)
- ⇒ Etxarri (Kale Nagusia 50 - 943 550077)
- ⇒ Isabel (Kardaberaz 19 - 943 553248)
- ⇒ Itsaspe (Antziola 5 - 943 330365)
- ⇒ Mari Fe (Kale Nagusia 36 - 943 550489)
- ⇒ M.Carmen (Etxeberri 4 - 943 333768)
- ⇒ Otaegi (Gudarien plaza 11 - 943 552831)
- ⇒ Super BM (Elkano 22 - 943 552290)
- ⇒ Zulaika (Mañe i Flaquer 6 - 943 557401)

ASTIGARRAGA:

- ⇒ Ainhoa (Pelotari 7-bis, beheka - 943 550238)



... ESKATU ARRAINAK EUSKARAZ



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskara Batzordeak